DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría

## AKTA

**HERRIGINTZAKO INFORMAZIO BATZORDEKO OHIKO BILKURA**

**TOKIA:** Udaletxeko bigarren solairuko batzar gela
**DATA:** 2026ko maiatzaren 18a.
**HASIERA ORDUA:** 17:00
**BUKAERA ORDUA:** 17:40

## ACTA

**SESIÓN ORDINARIA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE CIUDANANÍA**

**LUGAR:** Sala de reuniones de la 2ª planta de la Casa Consistorial
**FECHA:** 18 de mayo de 2026.
**HORA DE INICIO:** 17:00
**HORA DE FINALIZACIÓN:** 17:40

**PARTE-HARTZAILEAK/ASISTENTES**:

**PRESIDENTEA**
PRESIDENTA

- Jesica Ruiz Pérez (PSE-EE)

**ZINEGOTZIAK**
CONCEJALES

- Iker Txertudi Gaztelu (EAJ-PNV)
- Paule Sanchez Arieta-Araunabeña (EAJ-PNV)
- Arantza Barrenetxea Arruti (EAJ-PNV)
- Juan Antonio Bueno Moreno (EH Bildu)
- Nagore Lozano Zarandona (EH Bildu)
- Ane Abanzabalegi Areitio (EH Bildu)
- Jorge Varela Dorrio (HE)
- Carlos Garcia Fernandez (PP)

**IDAZKARI NAGUSIA**
SECRETARIA

- Teresa Oleaga Larrinaga

**ORDEZKARIA**
POR DELEGACION

- Amaia Aranaga Libano

Presidenteak hasiera eman dio bilerari, eta saio honetarako gai-zerrendan jasotako gaiak jorratzen hasi dira. Hauexek dira:

Iniciada la sesión por la Presidenta, se pasa a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

1. **Aurreko batzordeko aktaren irakurketa eta onarpena, bidezkoa balitz.**

   Aurreko batzordeko akta onartu da.

1. **Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.**

   Se aprueba el acta de la Comisión anterior.

2. **Herrigintza arloaren kudeaketa-txostena.**

Apirileko kudeaketa-txostena aurkeztu da, eta ez da horri buruzko galderarik egon.

2. **Informe de gestión del Área de Ciudadanía.**

Se presenta el informe de gestión de abril. No hay preguntas al respecto.

**3. Kultura Saila: Euskal Jaiaren programazioa.**

Arloko zinegotziak, Paule Sanchez Arieta-Araunabeñak, Euskal Jaien programazioaren berri eman du. Horretarako, Euskal Jaien egitaraua jarri da batzordeko kideen esku.

**3. Área de Cultura: programación de Euskal Jaia.**

La concejala del área, Paule Sánchez Arieta-Araunabeña, da cuenta de la programación de las Euskal Jaiak. Para ello, se ha puesto a disposición de las personas miembro de la comisión el programa de las Euskal Jaiak.

**4. Immigrazio Saila: Afrikako Eguna.**

Batzordeko presidenteak, Jesica Ruiz Perezek, Afrikako Egunaren programazioaren berri eman du.

**4. Área de Inmigración: Día de África.**

La Presidenta de la Comisión, Jesica Ruiz Perez, informa de la programación del Día de África.

**5. Dirulaguntzen Plan Estrategikoan egindako aldaketak.**

Batzordeko presidenteak, Jesica Ruiz Perezek, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan egindako aldaketen berri eman du:

- Ibaizabal eskubaloi-taldeari dirulaguntza izenduna emango zaio, *Lilakrosa* izeneko lasterketa herrikoia antolatzen eta dinamizatzen laguntzeagatik.
- Memoria historikoa lantzeko dokumentalak egiteko dirulaguntza-lerro berria sortuko da.
- Gerediaga elkartearekin sinatzen den “Durangoko Azoka eta Memoria historikoa berreskuratzeko lan-ikerketa programaren” hitzarmenaren diru kopurua handituko da, gerrako umeei buruzko ikerketa aurrera eramateko.

**5. Cambios realizados en el Plan Estratégico de Subvenciones.**

La Presidenta de la Comisión, Jesica Ruiz Pérez, informa de los cambios introducidos en el Plan Estratégico de Subvenciones:

- Se concederá una subvención nominativa al equipo de balonmano Ibaizabal por su colaboración en la organización y dinamización de la carrera popular denominada *Lilakrosa*.
- Se creará una nueva línea subvencional para la realización de documentales de memoria histórica.
- Se incrementará el importe del convenio con la asociación Gerediaga para el "Programa de investigación para la recuperación de la memoria histórica y Durangoko Azoka", con el fin de llevar a cabo la investigación sobre los niños y niñas de la guerra.

**6. Beste gai batzuk**

Gai-zerrendan jasotako gaiez gain, ondorengo hauek ere jakinarazi dira:

- Haurren Kontseilua osatzen duten umeen bisita ekainaren 4an izango dela gogorarazi da.
- Immigrazio teknikariaren lanposturako ordezkoa lortu da, eta lanean hasi da

**6. Otros asuntos de interés**

Además de los asuntos incluidos en el orden del día, se informa de los siguientes:

- Se recuerda que la visita de los niños y niñas integrantes del Consejo de la Infancia tendrá lugar el 4 de junio.
- Se ha conseguido cubrir la sustitución del puesto de técnica de Inmigración y

dagoeneko.

- Adinekoen Sailak Ribeira Sacrara antolatutako bidaiaren izen-ematearen berri eman da.
- Udaleku modalitate desberdinetan egondako izen-ematearen berri eman da.
- Kirol Egunaren antolaketaren berri eman da: ekainaren 13 eta 14an egingo da.
- Gogorarazi da maiatzaren 26an hitzaldia antolatu duela Udaleko Hezkuntza Sailak Kurutziaga ikastolarekin batera. Landuko den gaia honakoa izango da: *Digitalizazioa, Hezkuntza eta etorkizuneko erronkak.*
- Jakinarazi da Euskara Kontseilua dagoela deituta ekainaren 3rako.
- Komunikatu da Euskal Jaien egitarauaren barnean, Auzoko Elkarrizketak ekimena egingo dela ekainaren 5ean, hizkuntza-aniztasunari buruz aritzeko asmoz.
- Gogorarazi da Julene Azpeitia Literatura Lehiaketako sari-banaketa ekainaren 14an izango dela, eta deia egin zaie alderdi politiko guztietako ordezkariei bertan parte hartzeko.

ya se ha incorporado la sustituta.

- Se da cuenta de la inscripción del viaje organizado por el Departamento de Mayores a Ribeira Sacra.
- Se informa de la inscripción en las diferentes modalidades de campamentos de verano.
- Se informa de la organización de Kirol Eguna que se celebrará los días 13 y 14 de junio.
- Se recuerda que el 26 de mayo el Departamento de Educación del Ayuntamiento ha organizado una charla junto con la ikastola Kurutziaga. El tema a tratar será: *Digitalización, Educación y retos de futuro*.
- Se informa que el Consejo de Euskera está convocado para el 3 de junio.
- Se comunica que dentro del programa de Euskal Jaiak, el 5 de junio se celebrará la iniciativa Auzoko Elkarrizketak, con el objetivo de hablar sobre la diversidad lingüística.
- Se recuerda que la entrega de premios del Certamen Literario Julene Azpeitia tendrá lugar el 14 de junio y se convoca a los y las representantes de todos los partidos políticos a participar en el mismo.

## 7 . Galde-eskaerak

Ondorengo galde-eskaerak egon dira:

- EH Bilduko zinegotziak, Nagore Lozanok, galdetu du ea zertan den Enplegu Planaren barnean abian jarritako nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko egitasmoa.

  Batzordeko presidenteak, Jesica Ruiz Perezek, erantzun du hilabetero jasotzen dituen jarraipen-txostenak helaraziko dizkiela.

- EH Bilduko zinegotziak, Ane Abanzabalegik, galdetu du ea zertan diren, euskararen erabilera sustatzea helburu, maiatzeko astelehenetan gurasoentzat antolatutako hitzaldiak.

## 7. Ruegos y preguntas

Ha habido los siguientes ruegos y preguntas:

- La concejala de EH Bildu, Nagore Lozano, pregunta en qué punto está el plan para hacer frente a la soledad no deseada puesto en marcha dentro del Plan de Empleo.

  La presidenta de la Comisión, Jesica Ruiz Pérez, responde que les hará llegar los informes de seguimiento que recibe cada mes.

- La concejala de EH Bildu, Ane Abanzabalegi, pregunta en qué punto se encuentran las charlas organizadas para padres y madres los lunes de mayo con el objetivo de fomentar el uso del euskera.

Arloko zinegotziak eta teknikariak, Paule Sanchezek eta Amaia Aranagak, parte hartze datuak eman dizkiote.

La concejala y la técnica del área, Paule Sánchez y Amaia Aranaga, le han facilitado los datos de participación.

Deialdiko gai-zerrenda amaitu ondoren, presidenteak bukatutzat eman du bilkura. Akta hau idatzi da eta nik, idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretaria doy fe.